

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

5596

1772/2022 EBAZPENA, azaroaren 24koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez onartzen diren estatutupeko lotura finkoa lortzeko hautaketa-prozesua arautuko duten oinarri espezifikoak Fakultatibo Medikoak eta Teknikoak lanbide-taldeko Medikua kategorian (Onkologia Erradioterapikoko FEM lanpostu funtzionala), Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetako destinoetan.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 24ko 1736/2022 Ebazpenaren bidez onartu dira Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan estatutupeko lotura finkoa lortzeko deitutako hautaketa-prozesu hauetako oinarri orokorrak: 2020ko, 2021eko eta 2022ko urteetakoak eta egonkortzeko prozesukoak.

Hautaketa-prozesu bakoitza gauzatzeko, beharrezkoa da kategorია bakoitzeko destinoen deialdia arautuko duten oinarri espezifikoak argitaratzea.

Horregatik, kontuan izanda Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legea, Osasun-zerbitzuetako estatutupeko langileen esparru-estatutuaren abenduaren 16ko 55/2003 Legea, Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretua, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren Estatutu Sozialak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta indarrean dauden gainerako xedapen aplikagarriak,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Oinarri hauen xede diren hautaketa-prozesuetarako deia egitea.

Bigarrena.– Osakidetzan estatutupeko lotura finkoa lortzeko hautaketa-prozesuak (lehiaketa-oposizioko blokea eta lehiaketako blokea) arautuko dituzten oinarri espezifikoak onartzea, I. eranskinean jasotakoak, Fakultatibo Medikoak eta Teknikoak lanbide-taldeko Medikua kategorian (Onkologia Erradioterapikoko FEM lanpostu funtzionala), Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetako destinoetan.

Hirugarrena.– Ebazpen honen II. eranskinaren bidez onartzea bloke bakoitzean (lehiaketa-oposizioko blokea eta lehiaketako blokea) eskainitako destinoen zerrenda.

Laugarrena.– Ebazpen honen III. eranskinean agertzen den merezimenduen baremoa onartzea (baremo bera da oposizio-lehiaketaren blokerako eta lehiaketaren blokerako).

Bosgarrena.– Lehiaketa-oposizioko blokeko gai-zerrenda onartzea, Ebazpen honen IV. eranskinean jasotakoa.

Seigarrena.– Deialdi honetan parte hartzeko eskaera aurkezteko epea 2023ko otsailaren 21etik 2023ko martxoaren 20ko 14:00ak artekoa izango da, hala ezarri baita oinarri orokorrak onartzen dituen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 24ko 1736/2022 Ebazpenaren 9.3 oinarrian.

2022ko abenduaren 27a, asteartea

Zazpigarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa jarri ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpena EHAAan argitaratzen den egunaren hurrengo egunetik hasita, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legean eta Osakidetzaren estatutu sozialak ezartzeko azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan ezarritakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko azaroaren 24a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
MARÍA ROSA PÉREZ ESQUERDO.

I. ERANSKINA

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUAN ESTATUTUPEKO LOTURA FINKOA LORTZEKO HAUTAKETA-PROZESUAK ARAUTUKO DITUZTEN OINARRI ESPEZIFIKOAK, FAKULTATIBO MEDIKOAK ETA TEKNIKOAK LANBIDE-TALDEKO MEDIKUA KATEGORIARAKO (ONKOLOGIA ERRADIOTERAPIKOKO FEM LANPOSTU FUNTZIONALA), OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ZERBITZU SANITARIOETAKO ERAKUNDEETAKO DESTINOETARAKO

1.– Deialdiaren xede diren destinoak.

1.1.– Deialdi honen xede izango dira Fakultatibo Medikoak eta Teknikoak lanbide-taldeko Medikua kategoriako (Onkologia Erradioterapikoko FEM lanpostu funtzionala) Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetako destinoak; II. eranskinean jasota daudenak, alegia.

1.2.– Deialdian sartutako destinoen % 7 desgaitasunen bat duten langileek betetzeko gordeko dira, II. eranskinean jasotako oinarri orokorretako 1.3 oinarrian ezarritako banaketaren arabera.

2.– Izangaiek bete beharreko eskakizunak.

Honen bidez araututako prozesuan parte hartzeko, izangaiek, oinarri orokorretan ezarritako salbuespenak kenduta, aurkezteko epearen azken egunean bete beharreko eskakizunnez gain, oinarri orokorretan jasota daudenak ere bete beharko dituzte, eta horiek kasuan kasu esleitzen den destinoa jabetzan hartu arte bete beharko dira:

a) Oinarri orokorretako 6.2.c) apartatuan xedatutakoarekin bat, Medikuntzako eta Kirurgiako Lizentzia edo titulu baliokidea izatea eta Onkologia Erradioterapikoa espezialitateko titulua izatea, beharrezkoa baita lanpostu funtzionalan aritzeko, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuaren I. eranskinean zehaztutakoa betez.

b) Edonola ere, lortu nahi den lanpostuaren baldintzak betetzea, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuak xedatutakoaren arabera, bai eta indarrean dagoen araudiak eskatzen duen beste edozein eskakizun betetzea ere.

c) Eskabideak aurkezteko epearen barruan, izena emateko eskubideengatik dagokion tasa ordaindu izana, eskainitako destinoen lanbide-taldearen arabera:

A1 taldea (A talde zaharra): 25 euro.

3.– Prozesua nola garatuko den:

3.1.– Lehiaketa-oposizioko blokearen eta lehiaketako blokearen lehiaketa-fase bateratua:

3.1.1.– Eskakizunen eta merezimenduen egiaztapena. Dokumentazioa aurkeztea.

Onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrendan onartuta dauden izangaiek 10 egun balioduneko epea izango dute –onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrenda argitaratzen den egunaren hurrengotik hasita– deialdian parte hartzeko eskatzen diren baldintzen eta merezimenduen alegazioa egiteko, bai eta horien inguruko egiaztagiria aurkezteko ere, 12.1 oinarrian ezarritakoaren arabera.

Egiaztatutako merezimenduak III. eranskineko merezimenduen baremoaren arabera baloratuko dira, oinarri orokorretan ezarritako irizpideen arabera (12.2 oinarria).

3.1.2.– Oinarri orokorretako 14.1.1 apartatua (lehiaketa-oposizioko blokea) eta 14.2.1 apartatua (lehiaketako blokea) zehaztutako puntuazio-hurrenkeraren arabera izangaien behin-behineko zerrenda argitaratu ondoren, I. eranskinean agertzen diren proposatutako izangaiak honako dokumentu hauen fotokopia konpultsatua aurkeztu beharko dute, 14.1.2 oinarrian (lehiaketa-oposizioko blokea) eta 14.2.2 oinarrian (lehiaketako blokea) zerrendatzen den dokumentazioaz gain:

– Medikuntzako eta Kirurgiako Lizentzia edo titulu baliokidea izatea eta Onkologia Erradioterapikoa espezialitateko titulua izatea, beharrezkoa baita lanpostu funtzionalean aritzeko, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuaren I. eranskinean zehaztutakoa betez.

Izangai bat aldi berean lehiaketa-oposizioko blokeko I. eranskinean eta lehiaketako blokeko I. eranskinean sartuta badago, dokumentazioa behin bakarrik aurkeztu beharko du, oinarri orokorretan ezarritakoaren arabera (14.1.2 oinarria).

3.2.– Lehiaketa-oposizioko blokeari dagokion oposizio-fasea:

Epaimahai kalifikatzaileari dagokio proben edukia eta kalifikazioa zehaztea, eta, horretarako, hautaketa-prozesua behar bezala garatzeko beharrezkotzat jotzen dituen neurriak hartuko ditu eta prozesuaren gardentasuna eta objektibotasuna bermatuko du.

Epaimahaiak Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuari eskatu ahal izango dio aholkulariek parte har dezatela hautaketa-prozesuaren fase guztietan, bai proba prestatzeari dagokionez, bai lehiaketa-fasean. Aholkulariek epaimahaikideei eskatzen zaien titulu-eskakizun bera izango dute.

Epaimahaiak Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuari kanpoko erakunde aholkularietara jotzea ere eskatu ahal izango dio, probak prestatzeko eta oposizio-fasean probekin zerikusia duten gai guztietarako.

Oposizio-fasean ariketa hauek egin beharko dira:

a) Lehenengo ariketa: probari idatziz erantzun beharko zaio, ematen den gehieneko denboraren barruan, eta galderak IV. eranskinean jasotako gaiei buruzkoak izango dira:

1.– Gai-zerrenda komunari buruzko galderak Osakidetzaren webgunean argitaratutako galdera-sortatik aterako dira.

2.– Gai-zerrenda komunari buruzko galdera horiek prestatzeko bibliografia ere eranskin berean emango da.

b) Bigarren ariketa: epaimahaiak proposatzen dituen ariketa praktikoak egin beharko dira. Horretarako, aukerako erantzunak dituen galdera sorta bat erantzun beharko da.

Ariketak destinoen funtzio espezifikoekin lotuta egongo dira eta haien helburua izango da izangaiak destino horietan aritzeko dituzten gaitasunak, abileziak, ezagutzak eta ahalmen profesionala baloratzea.

Oposizio-fasean bi ariketa egingo dira proba berean; ariketa teoriko bat eta praktiko bat, biak eskainitako destino ezberdinetako funtzio espezifikoekin lotuta. Probaren azken emaitza bi ariketen batezbesteko haztatua izango da, % 65 proba teorikoarena eta % 35 ariketa praktikoarena. Horretarako, formula honen arabera lortuko da batezbesteko haztatua:

$$MP = \frac{(N1 * 65) + (N2 * 35)}{65 + 35}$$

MP: media ponderada
N1: nota prueba teórica (valorada sobre un máximo de 100 puntos)
N2: nota prueba práctica (valorada sobre un máximo de 100 puntos)

Oposizio-fasea gaindituzat emateko, bi ariketen batezbesteko haztatuak 100 puntutik 50 puntukoa izan beharko du gutxienez.

Epaimahai kalifikatzaileari dagokio gai-zerrenda komuneko galderak hautatzea eta gai-zerrenda orokorreko galderak hautatzeari buruzko erabakiak hartzea. Epaimahaiak galdera horiekin guztiekin osatuko du, hain zuzen ere, ariketa teorikoa. Era berean, epaimahai kalifikatzaileari dagokio ariketa praktikoa egitea eta kalifikatzea.

3.3.– Lanpostuez jabetzea.

Oinarri orokorretako 17. oinarrian aipatutako dokumentazioaz gain, deialdi honetako destinoren bat jabetzan hartzen dutenek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte lanpostuaz jabetzeko ekitaldian:

- Elkargokide-ziurtagiria.

II. ERANSKINA

DESTINOEN ZERRENDA KATEGORIA HONETAN: MEDIKUA, LANPOSTU FUNTZIONALA:
FAK. ESP. ERRADIOTERAPIA ONKOLOGIKOKO MEDIKUA

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren 1736/2022 Ebazpenaren bidez onartutako oinarri orokorretako 1. oinarrian xedatutakoaren arabera, destino hauek betetzeko deialdia egiten da:

1.– Lehiaketa-oposizio blokea:

a) Txanda askeko deialdia: 6 destino.

Sarbide orokorra: 5.

Erreserba-kupoa desgaitasunen bat duten pertsonentzat: 1.

– Adimen-desgaitasuna duten pertsonentzako kupoa: 0.

– Bestelako desgaitasunak dituzten pertsonentzako kupoa: 1.

2.– Lehiaketako blokea:

Sarbide orokorra: 3 destino.

Adimen-desgaitasuna duten langileentzako destinoak (adimen-desgaitasuna duten pertsonentzako kupoa) ez badira betetzen ez dagoelako hautaketa-prozesua gainditzen duen izangai nahikorik, destino horiek desgaitasunen bat duten langileentzako erreserba-kupoan gehituko dira (bestelako desgaitasunak dituzten pertsonentzako kupoa).

Desgaitasunen bat duten langileentzako destinoak ez badira betetzen ez dagoelako hautaketa-prozesua gainditzen duen izangai nahikorik, destino horiek dagokion txandako sarbide orokorreko lanpostuetan gehituko dira; hots, barne-sustapenean edo txanda irekian.

Oinarri orokorretako 2. oinarrian ezarritakoaren arabera, deialdi honen xede diren zerbitzu sanitarioetako erakundeetan destinoak, lehiaketa-oposizioko blokekoak zein lehiaketako blokekoak, zehaztuko dira, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorreko uneko zikloko destinoen behin betiko esleipenaren ebazpena argitaratu ondoren, deialdiaren xede diren kategoriak, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian 2018-2019ko EPEko behin betiko esleipenaren ebazpena argitaratu ondoren. Bi horiek Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren ebazpen bidez argitaratuko dira, eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren webgunean argitaratuko dira.

III. ERANSKINA

MEREZIMENDUEN BAREMOA FAKULTATIBO MEDIKOAK ETA TEKNIKOAK LANBIDE-TALDEKO MEDIKUA KATEGORIAN (ONKOLOGIA ERRADIOTERAPIKOKO FEM LANPOSTU FUNTZIONALA), OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ZERBITZU SANITARIOETAKO ERAKUNDEETAKO DESTINOETARAKO

1) Lan-esperientzia (gehienez, 60 puntu).

Eskabideak aurkezteko epearen azken egunaren aurreko 20 urteetan izangaiei aitortu zaien zerbitzaldia hartuko da kontuan.

Dagokion espezialitateko etengabeko arretako behin-behineko izendapen batean egindako zerbitzuen puntuazioari zerbitzu horiengatik normalean ematen den puntuazioaren % 50 aplikatuko zaio.

Zenbaketa osoa lan egindako egun naturaletan oinarrituko da, eta baztertu egingo dira hilabete-tik beherako soberakinak. Horretarako, 30 egun naturaleko multzoa hartuko da hilabetetzat.

Zerga, administrazio eta gizarte neurriei eta ordena sozialari buruzko abenduaren 23ko 62/2003 Legean xedatutakoaren arabera eta deialdiak ezarri bezala, titulua irailaren 24ko 1497/1999 Errege Dekretuaren babesean eskuratu dutenen espezialista gisako antzintasuna baloratzeko, aintzat hartuko da interesdunak espezialitatearen berezko eta berariazko eremuan egindako lan profesional eraginkor osoa. Nolanahi ere, jardute horretatik –eta hasierako alditik– kendu egingo da Espainian espezialitate horretarako ezarritako prestakuntza-aldiaren % 170. Kenketa hori ez zaie aplikatuko espezialista-titulua 1497/1999 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarriaren arabera lortu dutenei.

1.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan edo autonomia-erkidegoetako osasun-zerbitzuetan kategoria eta espezialitate berean edo arlo medikoko kudeaketako lanpostuetan emandako zerbitzuen hilabete bakoitzeko: 0,30 puntu.

2.– Gizarte Segurantzako zerbitzu sanitarioetako erakundeetan, aurreko puntuan aipatu ez diren administrazio publikoetan edota Europar Batasuneko gainerako estatu kideen sare publikoko zerbitzu sanitarioetan kategoria eta espezialitate berean edo arlo medikoko kudeaketa-lanpostuetan emandako zerbitzuen hilabete bakoitzeko: 0,075 puntu.

3.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan edo autonomia-erkidegoetako osasun-zerbitzuetan Kupoko eta Zonako Mediku gisa espezialitate berean emandako zerbitzuen hilabete bakoitzeko: 0,12 puntu.

4.– Aurreko puntuan aipatu ez diren administrazio publikoetako zerbitzu sanitarioetako erakundeetan edota Europar Batasuneko gainerako estatu kideen sare publikoko zerbitzu sanitarioetan Kupoko edo Zonako Mediku gisa espezialitate berean emandako zerbitzuen hilabete bakoitzeko: 0,03 puntu.

5.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan edo autonomia-erkidegoetako zerbitzu sanitarioetan edo Osasun Sistema Nazionalari atxikitako ikerketa-zentro ofizialetan edo bestelako erakundeetan Mediku Orokor edo beste espezialitateetako mediku edo ikertzaile gisa emandako zerbitzuen hilabete bakoitzeko: 0,055 puntu.

6.– Aurreko puntuan aipatu ez diren administrazio publikoetako zerbitzu sanitarioetako erakundeetan edota Europar Batasuneko gainerako estatu kideen sare publikoko zerbitzu sanitarioetan

Mediku Orokor edo beste espezialitate batzuetako mediku edo ikertzaile gisa emandako zerbitzuen hilabete bakoitzeko: 0,0138 puntu.

7.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan eta autonomia-erkidegoetako osasun-zerbitzuetan kudeaketa-arloan eta zerbitzu orokorren arloan goi-mailako kudeaketa lanpostuetan egindako hilabete bakoitzeko: 0,05 puntu.

Barne-sustapeneko txandaren bidez sartzen diren langileei ondoren zehazten den moduan zenbatuko zaizkie alde zuzeneko zerbitzuak:

- a) E taldean eskainitako zerbitzuak: 0,02 puntu hilabete bakoitzeko.
- b) D taldean eskainitako zerbitzuak: 0,03 puntu hilabete bakoitzeko.
- c) C taldean eskainitako zerbitzuak: 0,04 puntu hilabete bakoitzeko.
- d) B taldean eskainitako zerbitzuak: 0,05 puntu hilabete bakoitzeko.
- e) A taldean eskainitako zerbitzuak: 0,12 puntu hilabete bakoitzeko.

f) Lortu nahi den lanpostu berean emandako zerbitzuak:

f.1) Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan edo autonomia-erkidegoetako osasun-zerbitzuetan: 0,30 puntu hilabete bakoitzeko.

f.2) Gizarte Segurantzako zerbitzu sanitarioetako erakundeetan, aurreko puntuan aipatu ez diren administrazio publikoetan edota Europar Batasuneko gainerako estatu kideen sare publiko zerbitzu sanitarioetan: 0,15 puntu hilabete bakoitzeko.

Zerbitzu-eginkizunetan edo goragoko kategoriako eginkizunetan emandako zerbitzuak benetan betetako lanpostuan zenbatuko dira.

Halaber, jatorrizko lanpostuan zenbatuko dira zerbitzu berezietan emandako zerbitzuak.

2) Prestakuntza, irakaskuntza eta ikerketa (gehienez, 20 puntu).

A) Apartatu honetan, honako hauen arabera egiaztatzen den prestakuntza baloratuko da:

a) Graduareko prestakuntza:

Espediente akademikoaren balorazioa honela egingo da:

$$\frac{(\text{Bikain kopurua} \times 6) + (\text{Ohorezko matrikulen kopurua} \times 9)}{\text{Ikasgaiak, guztira}}$$

Ez dira ebaluatuko, eta, horregatik, ez dira zatitzailean sartuko, ez ofizialki baliozkotu diren ikasgaiak, ez erlijioak, prestakuntza politikoko, gorputz-hezkuntzako eta hizkuntzetako ikasgaiak, ez Medikuntzako eta Kirurgiako Lizentziako ikasketen edo baliokideren berezko edukiarekin funtsezko loturarik ez duten beste ikasgai batzuen kalifikazioak.

b) Graduondoko prestakuntza:

– Cum laude doktore-titulua: 10 puntu.

– Doktore-titulua: 9 puntu.

- Graduondoko masterra: 6 puntu.
- Unibertsitateko Aditu edo Espezialista titulua: 5 puntu.
- Ikertzeko nahikotasuna edo Diploma ikasketa aurreratuetan: 4 puntu.
- Lizentzia-gradua (bikain edo ohorezko matrikula): 3 puntu.
- Doktoretza-ikastaroa, ikastaro bakoitzeko (gehienez, 10 ikastaro): 0,25 puntu.
- Lotutako bestelako unibertsitate-tituluak: 2,5 puntu.

Cum laude doktore gisa puntuazioa emanaz gero, ez da punturik emango doktore gisa. Cum laude doktorea edo Ikertzeko nahikotasuna edo Ikasketa aurreratuen diploma lortzeko balio izan duten programetako doktoretza-ikastaroek ez dute punturik emango.

c) Prestakuntza espezializatua:

1.– Kategorian sartzeko eskatutakoak ez diren legez aitortutako espezialitate bateko edo batzuetako tituluak dituzten izangaiak, betiere titulu horiek ofizialki onartutako fakultatiboen prestakuntza espezializatuko programa egoiliar gisa bete ondoren lortu badituzte: 2 puntu.

2.– Kategorian sartzeko eskatutakoa ez den espezialista-tituluak dituzten izangaiak (BAME bidezkoak ez direnak): 1 puntu.

d) Hizkuntzak (gehienez, 3 puntu):

- Ingelesa: gehienez, 1,5 puntu.
- Frantsesa: gehienez, 1,5 puntu.
- Alemana: gehienez, 1,5 puntu.

e) Informatikako ezagutzak (gehienez, 2 puntu).

B) Apartatu honetan, eskaerak aurkezteko azken egunaren aurreko 10 urteetan amaitu den prestakuntza baloratuko da, eta honela egiaztatuko da:

a) Etengabeko prestakuntza:

Eskatutako destinoaren kategoriarekin zerikusia duten ikastaroetara joateagatik:

- 9 ordura arte: 0,25 puntu.
- 10 eta 19 ordu bitartean: 0,75 puntu.
- 20 eta 29 ordu bitartean: 1,25 puntu.
- 30 eta 49 ordu bitartean: 2 puntu.
- 50 eta 99 ordu bitartean: 3 puntu.
- 100 eta 249 ordu bitartean: 4 puntu.
- 250 eta 599 ordu bitartean: 5 puntu.
- 600 ordu edo gehiago: 6 puntu.

Ikastaroen egiaztagirian kreditu kopurua bakarrik jasota dagoenean, puntuazioa emateko balio-kidetasun hau egingo da:

- Kredituen Europako Sistemaren (ECTS) 1 kreditu: 25 ordu.
- Etengabeko Prestakuntza Batzordeko 1 kreditu: 10 ordu.

Ikastaroaren ordu kopurua eta kreditu kopurua adierazten ez duten egiaztagirien kasuan, edo kredituak izan bai, baina horiek aurreko paragrafoan zehaztutakoak ez direnean edo kredituen beste ordu-baliokidetasun bat ezartzen denean, epaimahaiak, aurkeztutako egiaztagiriak eta ikastaroaren edukia ikusita, dagokion puntuazioa emango du, eta kasu horretan ez du inolaz ere 0,25 puntu baino gutxiago emango.

Erakunde ofizialek, unibertsitateek, erakunde sanitarioek eta, hala badagokio, elkargo profesionalek eta elkarte zientifikoek egiaztatutako/akreditatutako ikastaroak baloratuko dira, baita edozein administrazio publikok hitzartutako etengabeko prestakuntzako akordioan arabera egiaztatutako/akreditatutako ikastaroak ere, betiere titulu ofizial bat lortzeko ikasketa-plan baten barrukoak ez badira.

b) Irakaskuntza-jarduerak:

- Fakultateko/Unibertsitate Eskolako katedraduna (urteko): 1 puntu.
- Unibertsitateko fakultateko/eskolako irakasle titularra edo elkartua (urteko): 0,50 puntu.
- Egoiliarren irakaskuntzarako tutore akreditatua, dagokion espezialitatean (urte bakoitzeko): 0,750 puntu.
- Irakaskuntza, etengabeko prestakuntzako programa ofizialetan (orduak): 0,050 puntu.

c) Jarduera zientifikoa eta ezagutzaren hedapena:

Eskatutako destinoko lanpostu funtzionalarekin zerikusia duten lan zientifikoak argitaratzearen, txostenak aurkeztearen, komunikazioak aurkeztearen, hitzaldiak ematearen edo mahai-inguruetan parte hartzearen:

- Eskualdeko txosten bakoitzeko: 0,50 puntu.
- Estatuko txosten bakoitzeko: 2 puntu.
- Nazioarteko txosten bakoitzeko: 3 puntu.
- Eskualdeko ahozko komunikazio/poster bakoitzeko: 0,30 puntu.
- Estatuko ahozko komunikazio/poster bakoitzeko: 1,20 puntu.
- Nazioarteko ahozko komunikazio/poster bakoitzeko: 2 puntu.
- Eskualdeko mahai-inguru bakoitzeko: 0,40 puntu.
- Estatuko mahai-inguru bakoitzeko: 1,50 puntu.
- Nazioarteko mahai-inguru bakoitzeko: 2,50 puntu.
- Argitalpen bakoitzeko (lehenengo egilea): 2 puntu.
- Argitalpen bakoitzeko (beste egile batzuk): 1 puntu.

- Liburu bakoitzeko (lehenengo egilea): 4 puntu.
- Liburu bakoitzeko (beste egile batzuk): 2 puntu.
- Kapitulu bakoitzeko (lehenengo egilea): 2 puntu.
- Kapitulu bakoitzeko (beste egile batzuk): 1 puntu.
- Tesina bakoitzeko: 3 puntu.

Ez da baloratuko atal honetan zehaztu ez den merezimendurik.

3) Euskara:

- 2. HE: 18 puntu.
- 1. HE: 9 puntu.

ANEXO IV

ONKOLOGIA ERRADIOTERAPIKOKO MEDIKU FAK. ESP.

I.– GAI-ZERRENDA OROKORRA

- 1.– Onkologia erradioterapikoa. Espezialitatearen definizioa, baldintzak, helburuak eta eremua.
- 2.– Gaixotasun neoplasikoaren historia naturala. Kartzinogenesia eta tumore-garapena. Tumore-geenetika. Tumore-ugaltzea. Biologia molekularren terminologia eta teknikak kantzerologian.
- 3.– Tumore-patologia. Alderdi histopatologiko orokorrak. Metodo diagnostikoak. Koadro anatomopatologikoak. Tumore-sailkapena: irizpideak. Tumore-estadifikazioa.
- 4.– Erradiobiologia orokorra. Ionizazioa, eszitazioa. Oinarrizko magnitude eta unitate erradiologikoak. Erradiazioak sistema biologikoetan dituen efektu orokorrak. Erradiazioaren ondoriozko zelula-biziraupen eta -suntsipena. Erradiazioaren efektuak zeluletan. Erradiazioaren efektuak ehunetan. Erradiazioak eragindako kartzinogenesia.
- 5.– Tumore-erradiobiologia. Tumore-hazkunde eta -garapena. Erradiazioaren aurreko tumorearen erantzuna. Erradiazioaren aurreko tumorearen erantzunaren aldarazleak. Erradiazio bidezko tumore-kontrola. Ehun arrunten erradiazioaren aurreko erantzuna. Dosiaren zatikapena erradioterapian. Dosiaren eta denboraren arteko harremanak minbiziaren zatikako erradioterapian. Tumore-berrirradiazioa. Saiakuntza prediktiboak erradioterapian.
- 6.– Fisikoa. Oinarrizko erradiofisika. Erradioterapiari aplikatutako erradiofisika. Babes erradiologikoa. Legedia.
- 7.– Sailkapena erradioterapian. Plangintzaren kontzeptua. Erradioterapiaren prozesua: etapak. ICRU txostenak. Tratamenduaren gutxi gorabeherako preskripzioa. Datu anatomikoak eskuratzea. Plangintza geometrikoa (GTV, CTV, PTV, ORs). Bolumen-aldaketa geometrikoak eta bestelako ziurgabetasunak. Tratamendu-baldintzen definizioa.
- 8.– Dosimetria-plangintza (dosimetria klinikoa). Tratamenduaren behin betiko preskripzioa. Tratamendua egiaztatzea. Plangintza brakiterapian. Teknika ez-konbentzionalen plangintza. Kalitate bermea. Erantzukizunak (1566/1998 Errege Dekretua).
- 9.– Irudi bidezko diagnostikoa. Oinarrizko parametroak: irudien kontrastea, bereizmena eta gardentasuna. Diagnostiko-metodoak (screening, tratamenduaren aurreko erantzunaren definizioa, berrerritzeak eta metastasiak antzematea). Oinarrizko semiologia erradiologikoa: oinarrizko lesioen ezaugarriak eta aldeak. Irudien sentikortasuna, berariazkotasuna eta balio-igarlea. Aplikazio kliniko orokorrak. Aplikazio espezifikokoak: Burua eta lepoa, Torax eta mediastinoa, Abdomen eta pelbisa eta Gorputz-adarrak. Simulazio-teknikak. Irudiaren garapen berriak.
- 10.– Minbiziaren tratamendua I: Printzipio orokorrak. Erradioterapia orokorra. Brakiterapia. Teknika ez-konbentzionalak: erradioterapia estereotaxikoa. Intentsitate modulatuak erradioterapia. Ebakuntza barruko erradioterapia. Gorputz-irradiazio totala. Erabateko gorputz-azaleko erradioterapia. Hodi barneko eta koroa barneko erradioterapia. Erradioterapia berezia: Partikula astunen bidezko minbiziaren tratamendua, Hipertemia eta irradiazioa, Erradioterapia igorle markatuekin. Terapia fotodinamikoa.
- 11.– Minbiziaren tratamendua II: Kirurgia. Kimioterapia. Hormonaterapia. Immunoterapia, Erantzun biologikoaren aldarazleak. Itu molekular berriak. Laguntzazko tratamendua. Tratamenduen konbinazioa.

12.– Minbiziaren tratamendua III: tratamenduaren aurreko erantzun-irizpideak eta toxikotasun-eskailak. Pronostikoaren faktore orokorrak. Laguntzazko tratamendua onkologia erradioterapikoan.

13.– Minbiziaren tratamendua IV: Larrialdi onkologikoak: konpresioa, buxadura, hemorragia, bestelakoak. Toxikotasun akutu eta berantiar erradioinduzituak. Mina. Infekzioa. Linfedema. Syndrome paraneoplasikoak. Gaixotasun neoplasikoaren alderdi psikosozialak. Talde-lana.

Tumore espezifikoko guztien kokapenean honako hauek sartzen dira: diagnostikoa eta tratamendua, epidemiologia, historia naturala, anatomia patologikoa, hedadura-diagnostikoa, pronostiko-faktoreak, tratamendua, kontrol lokala, biziraupena, toxikotasuna, eta konplikazioak minbizien forma kliniko hauetan:

14.– Nerbio-sistema zentralako tumoreak eta tumore oftalmikoak.

15.– Laringeko minbizia eta aho-barrunbeko minbizia.

16.– Aho-faringeko minbizia, hipofaringeko minbizia eta errinofaringeko minbizia.

17.– Sudur-hodietako eta sinu paranasaletako tumoreak, listu-guruinetako tumoreak eta tiroideko minbizia.

18.– Bularreko minbizia.

19.– Biriketako minbizia, tumore mediastinikoak eta mesotelioma.

20.– Esofagoko minbizia, urdaileko minbizia, pankreako minbizia, gibealeko eta behazunbideetako minbizia.

21.– Heste meharreko tumoreak, kolon eta ondesteko minbizia eta uzkioko minbizia.

22.– Maskuriko minbizia. Giltzurruneko, giltzurrun-pelbiseko eta ureterreko tumoreak, uretrako tumoreak. Zakileko minbizia.

23.– Prostatako minbizia. Barrabiletako tumoreak.

24.– Umetoki-lepoko minbizia eta endometrioko kartzinoma.

25.– Baginako minbizia. Aluko minbizia. Obulutegi eta tronpetako minbizia.

26.– Hodgkin-en gaixotasuna. Ez-Hodgkin linfomak. Leuzemiak. Plasmazitoma eta mieloma anizkoitza.

27.– Hezurreko eta atal bigunetako sarkomak.

28.– Minbizia haurtzaroan.

29.– Azaleko minbizia. Melanomak. Minbizia geriatrian.

30.– Tumore germinalak. Jatorri ezezaguneko tumoreak eta prozesu onberak.

31.– Zainketa aringarriak. Medikuntza aringarriaren eta gaixotasun terminalaren kontzeptua. Zainketa aringarriak antolatzea. Erradioterapiaren papera egoera terminalean dauden minbiziko pazienteen tratamenduan.

32.– Minaren tratamendua. Mina eta sufrimendua. Mina paziente onkologiko terminalean. Tratamendu sintomatikoa.

33.– Kudeaketa klinikoa onkologia erradioterapikoan. Zerbitzu-zorroa. Espezialistaren gaitasunak onkologia erradioterapikoan. Laguntza-lanpostuaren zereginak. Erradioterapiako zerbitzu baten antolaketa funtzionala. Oinarrizko ekipamendua eta giza baliabideak. Jarduera-adierazleak. Nazioko eta nazioarteko gomendioak.

34.– Laguntza-jarduera kudeatzea. Ospitale-produktua. Pazienteak sailkatzeko sistemak. Erradioterapia bidezko tratamenduen konplexutasun-mailak. Onkologia erradioterapikoko prozesuen katalogoa. Kostuak prozesuko.

35.– Ekonomia eta osasuna. Oinarrizko kontzeptuak: eraginkortasuna, efikazia, efizientzia, erabilerraztasuna, gogobetetasuna eta ekitatea. Osasun-teknologiaren ebaluazio ekonomikoa: kostu-etekinaren, kostu-eraginkortasunaren eta kostu-erabilgarritasunaren azterketa.

36.– Kalitatea. Kalitatearen kontzeptua osasunaren eremuan. Inpaktu asistentzial eta ekonomikoa. Laguntzaren antolamendua ezagutzea: programa-kontratuak. Koordinazioaren garrantzia. Tumore-batzordea. Laguntzaren kalitatea: kontrola eta hobekuntza. Kalitatearen adierazleak, irizpideak eta estandarrak. Erradioterapiako prozesuen kanpo-ebaluazioa. Praktika klinikoko gidak. Erabaki-algoritmoak. Erradioterapiako garantiako eta kalitate-kontrolako programa.

37.– Saiakuntza klinikoak onkologia erradioterapikoan. I, II, III, IV motako saiakuntzak: helburuak eta metodologia. Oinarrizko legedia. Alderdi mediko-legalak.

38.– Bioetika. Gogoeta orokorrak. Onkologia erradioterapikoko baliabide-banaketaren etika. Erradioterapia-tratamenduko pazienteen itzarote-zerrendak. Desberdintasun terapeutikoak ezabatze metodoak. Medikuen eta gaixoen arteko harremana. Baimen informatua. Adingabearen eta paziente ezinduen baimena. Konfidentzialtasuna eta lanbide-sekretua. Egiazkotasuna. Pertsonarteko komunikazioa.

39.– Arreta orokorra paziente onkologikoari. Oinarrizko antropologikoa: gizakien askatasuna eta duintasuna. Sufrimenduaren antropologia: dilema etikoak. Erabaki klinikoaren etika. Bizi-kalitatea eta zainketa etika egoera terminalean. Tratamendu-intentsitatearen mugak. Tematze terapeutikoa.

40.– Erakundearen inguruko alderdiak. Etika eta deontologia. Deontologia-batzordeak. Ikerketa klinikoaren batzorde etikoak.

41.– Espezialitatearen esparru juridikoa. Onkologia erradioterapikoko oinarrizko legeria. 2013/59/ EURATOM Zuzentaraua, erradiazio ionizatzailerikiko esposizioaren ondoriozko arriskuetatik babesteko oinarrizko segurtasun-arauak ezartzen dituenak. 1566/1998 Errege Dekretua, Erradioterapiaren Kalitate Irizpideak ezartzen dituenak. 1836/1999 Errege Dekretua, Instalazio Nuklear eta Erradioaktiboak buruzko Erregelamendua onartzen duena. 815/2001 Errege Dekretua, pertsonak medikuntzako esposizioak direla-eta erradiologikoki babesteko erradiazio ionizatzailerik erabiltzea justifikatzen duena.

42.– Hurbilketa kontzeptuala. Espezialitatearen izendapen ofiziala eta baldintzak (127/1984 Errege Dekretua). Espezialistak prestatzeko gida. Onkologia erradioterapikoa. Espezialitate Medikoen Kontseilu Nazionala. Osasun eta Kontsumo Ministerioa (1996). Ezagutza teorikoak eta praktikoak, baliabideak, giza beharrak eta materialak. Onkologia erradioterapikoaren egungo egoera Espainian. Erradioterapia eta Onkologiako Espainiako Elkartearen (2002).

43.– Erantzukizun-mailak. Egitura hierarkikoa (521/1987 Errege Dekretua). Lanbide profila (1566/1998 Errege Dekretua). Administrazioarekiko harremanak (3160/1966 Errege Dekretua). Erantzukizun zibila (Kode Zibila eta Osasunari buruzko Lege Orokorra). Erantzukizun penala (Zigor Kodea). Administrazio eta diziplinako erantzukizuna (1836/1999 Errege Dekretua). Erantzukizun etiko eta deontologikoa (Medikuen Erakunde Elkargoa, 1999). Kode deontologikoa. SEOR

XXI Liburu Zuria – Onkologia erradioterapikoaren egoeraren, beharren eta baliabideen azterketa (2010). Espainiako Onkologiaren Hirugarren Liburu Zuria. Onkologiako Espainiako Elkartearen Federazioa (2002).

GAI-ZERRENDA OROKORRAREN BIBLIOGRAFIA

1.– K.S. Clifford Chao, Carlos A. Perez, Luther W. Brady. Radiation Oncology. Management Decisions (3. edizioa). Lippincott Williams & Wilkins. 2011.

2.– Philip Rubin. Oncología Clínica. Enfoque multidisciplinario para médicos y estudiantes (8. edizioa). Elsevier Science. 2003.

3.– Faiz M. Khan. The Physics of Radiation Therapy (5 edizioa) Wolters Kluber. 2014.

4.– Eric J. Hall. Radiobiology for the radiologist (7. edizioa). Lippincott Williams & Wilkins. 2011.

5.– Joiner M. Basic Clinical Radiobiology (4. edizioa). Arnold. 2009.

6.– De Vita VT, Lawrence TS. Cancer Principles & Practice of Oncology (9. edizioa). Lippincott Williams & Wilkins. 2011.

7.– Biete, Palacios Clavo. Gestión Clínica en Oncología Radioterápica. AERO. Lege-gordailua: M-277-2003.

8.– Calvo, F. Oncología Radioterápica. Principios, métodos, gestión y práctica clínica (1. edizioa). ARÁN. 2010.

9.– Barret A, Dobbs J. Practical radiotherapy planning (4. edizioa). Arnold. 2009.

10.– Halperin EC, Pérez CA, Brady LW. Principles and Practice of Radiation Oncology (6. edizioa). Wolters Kluber. 2013.

11.– Hoppe R, Phillips TL, Roach M. Leibel and Phillips Textbook of Radiation Oncology (3. edizioa). Saunders. 2010.

12.– Gunderson, Tepper. Clinical Radiation Oncology (4. edizioa). Elsevier. 2016.

II.– GAI-ZERRENDA KOMUNA

1.– Osasun-lanbideen araudia.

2.– Osasun Sistema Nazionalaren kohesioari eta kalitatea.

3.– Osasun-zerbitzuetako estatutupeko langileen esparru-estatutua.

4.– Euskadiko Antolamendu Sanitarioa.

5.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoa.

6.– Osakidetzako paziente eta erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak.

7.– Pazientearen autonomia eta eskubideak eta betebeharrak informazio eta dokumentazio klinikoko gaietan.

8.– Osasunaren arloko aurretiazko borondateak.

9.– Datu Pertsonalak Babesa eta Eskubide Digitalak Bermatzea.

- 10.– Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna.
- 11.– Marko Estrategikoa.
- 12.– Osasun Plana. Euskadiko Osasun Politikak.
- 13.– Pazientearen Segurtasun Estrategia Osakidetzan.
- 14.– Euskadiko Arreta Soziosanitarioko Estrategia.
- 15.– Osakidetzan Euskararen erabilera normalizatzeko III. Plana.

GAI-ZERRENDA KOMUNAREN BIBLIOGRAFIA

- 1.– 44/2003 Legea, azaroaren 21ekoa, Lanbide Sanitarioen Antolamenduari buruzkoa.
- 2.– 16/2003 Legea, maiatzaren 28koa, Osasun Sistema Nazionalaren kohesio eta kalitateari buruzkoa.
- 3.– 55/2003 Legea, abenduaren 16koa, Osasun-zerbitzuetako estatutupeko langileen esparru-estatutuarena.
- 4.– 8/1997 Legea, ekainaren 26koa, Euskadiko Antolamendu Sanitarioarena.
- 5.– 255/1997 Dekretua, azaroaren 11koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren Estatutu Sozialak ezartzen dituenak.
- 6.– 147/2015 Dekretua, uztailaren 21ekoa, Euskadiko osasun-sistemako pertsonen Eskubideei eta Betebeharrei buruzko Adierazpena onartzen duena.
- 7.– 41/2002 Oinarrizko Legea, azaroaren 14koa, pazientearen autonomiari eta informazio eta dokumentazio klinikoaren arloko eskubide eta betebeharrei dagokiena.
- 8.– 7/2002 Legea, abenduaren 12koa, osasun-arloko aurretiazko borondateena.
- 9.– 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoa.
- 10.– 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa, martxoaren 3ko 1/2022 Legearen bigarren aldaketa barne.
- 11.– Marko Estrategikoa. Osasun Saila. 2021-2024.
https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/marco_estrategico_2021_2024/eu_def/adjuntos/Marco-Estrategikoa-Osasun-Saila-2021-2024.pdf
- 12.– Osasun Plana. Euskadiko Osasun Politikak 2013-2020.
http://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_informes_estudio/eu_pub/adjuntos/osasun_plana_2013_2020.pdf
- 13.– Pazientearen Segurtasun Estrategia Osakidetzan 20 20.
https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/cinfo_estrategia_seg_paciente/eu_def/adjuntos/ESTRATEGIA2020_eu.pdf

14.– Euskadiko Arreta Soziosanitarioko Estrategia (2021-2024).

https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/doc_sosa_soziosanitario_estrat/eu_def/adjuntos/estrategia_sociosanitaria_187x280_eu_web.pdf

15.– Osakidetzan Euskararen erabilera normalizatzeko III. Plana 2022-2028.

https://www.osakidetz.euskadi.eus/contenidos/informacion/osk_trbg_planes_programas/eu_def/adjuntos/Osakidetzan-Euskararen-Erabilera-Normalizatzeko-III-Plana-2022-2028.pdf